



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko abuztuaren 8a

66. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Odol eta Ehun Bankuan erabiltzen den prozedurari eta ehunen kontrolaren kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, 1512-2012 mendeurrena dela-eta prestatutako programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ez dion erantzun iragan azaroaren 3an AHTaren gainean eginiko galderari. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, N-240 errepidean, Ledeko parean, trafiko astunari balizko muga ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Mercadona bezalako kateekiko hitzarmen eta akordioek izan dezaketen eraginaren balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Larrialdietako Agentziako sarjentu izateko bost lanposturen deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, jakitekoa ba ote dagoen natur monumentuak mantentzeko inolako planik. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak 2011ko urriaren 1etik abenduaren 31ra baimendutako laguntzen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, erradioterapia tratamendua hartzen duten Erriberako gaixoentzako autobus zerbitzuaren gaineko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, “Félix Garrido” osasun mentaleko egoitza abian ez jartzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten administrazio kontseiluetako kideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, 2011ko abenduan hartutako tributu-neurrien ondorioz izanen den presio fiskalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, jakitekoa nola betetzeko asmoa duen Nafarroako Larrialdietako Agentziak Iruñeko lan arloko 2. epaitegiak emandako 215/2011 epaia. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Odol eta Ehun Bankuan erabiltzen den prozedurari eta ehunen kontrolaren kudeaketari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du Odol eta Ehun Bankuan erabiltzen den prozedurari eta ehunen kontrolaren kudeaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak "Odol eta Ehun Bankuko ehunak, organoak eta odoletik eratorritako gaiak kudeatzeko eta erabiltzeko prozedurez eta plasma industrialaren erosketa eta fakturazioa nork eta nola kudeatzen duen, eta azkeneko bi urteetako fakturazioa zein izan den" idatziz erantzuteko egindako galderari (8-12/PES-00001) hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak:

1. galderaren erantzuna:

20/2010 Foru Legea garatzeko, Aholku Batzorde Tekniko bat (ABT) osatu zen Foru Lege hori aplikatzeko, eginkizun hauekin: 1) Gaur egungo egituraren, funtzionamenduaren eta baliabideen azterketa bat egitea, araudi berrira egokitzeko; 2) Foru Legea aplikatzeko behar den araudiaren garapena proposatzea; 3) bere eskumeneko eginkizunak betetzeko behar diren gainerako eginkizun guztiak. ABTek hiru bilera egin ditu: 2011ko

martxoaren 14an, azaroaren 9an eta azaroaren 21ean.

Beste alde batetik, Biologilari Kliniko lanpostu bat hornitu da, ehunen banaketa egiten hasteko baimenak lortzeko ehunen banaketarako behar diren betebeharrak tekniko guztiak garatzeko eta ehunak kontserbatzeko ekipoak erosteko.

20/2010 Foru Legea indarrean sartzeak ez du aldaketarik ekarri odoletik eratorritako gaien kudeaketari dagokionez.

Gaur egun Nafarroako Ospitaleguneko organoen eta ehunen koordinatzaileek kudeatzen dute; Odol Bankua, bere aldetik, kudeaketarako prozedura berria aztertzen ari da.

2. galderaren erantzuna:

Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak ez du plasma industrialik batere erosi.

Beste gauza bat egiten da, eta hala dago jasota Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak 2011ko urriaren 7an egindako bisitan eskura emandako txostenean: plasma-soberakinak odoletik eratorriak lortzeko zatikatzen bidaltzen dira, erabilera klinikoez bestelako erabileretan erabiltzeko. Herrialde honetan ez dago erabili gabeko plasma erabilera ez klinikotarako erosteko eta saltzeko merkaturik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Osasun kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, 1512-2012 mendeurrena dela-eta prestatutako programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du 1512-2012 mendeurrena dela-eta prestatutako programari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko otsailaren 3ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak 1212 eta 1512ko mendeurrenen ospakizunei buruzko zenbait gairi buruz idatziz erantzuteko galderari dagokionez, hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak Nafarroaren Historian eta Nafarroako Zuzenbidean ezagunak diren historialaririk eta aditurik ospetsuenetako batzuek egindako iaz azterketa historiko eta zientifiko zehatzetan oinarrituta prestatu diren ospakizun eta argitalpen programa batez ospatuko ditu 1212 eta 1512 urteen mendeurrenak (Navas de Tolosako guduaren mendeurrena eta Nafarroa Gaztelako erreinuak konkistatu, beretu eta hari erantsi zitzaizkion mendeurrena). Egitarau horretan sartuta daude historiari eta zientziari buruzko zenbait argitalpen, Hezkuntzaren eremuan gauzatzeko kultura-zabalkundeko zenbait jarduerak, erakusketa-egitarau bat eta Nafarroaren historian eta 1512ko gertakarietan protagonista izan ziren eraikin enblematiko batzuk zaharberritzearekin batera ospatzeko zenbait herri-ospakizun.

Jarduera-plan honek ez du aurrekontuetan horretarako berariaz xedatutako kontusailik; Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren eta Hezkuntzako Departamentuaren zerbitzuen zenbait jarduerak arrunt mendeurren horien azterketara eta zabalkundera bideratuz egin da.

JARDUERA EGITARAUA

KULTURA ARGITALPENAK:

1) Fernando el Católico y la empresa de Navarra (1512-1516). Lan honetan Fernando Katolikoa-

ren erreinaldiko azkeneko urteetan Nafarroa konkistatzeak eta Gaztelara atxikitzeak izan zituen aurrekariak eta ondorioak jasotzen dira. Hiru urteko epe batean, Aragoiko errege eta Gaztelako gobernari zenak Nafarroako erreinua bere ibilbidea bakarrik jarraitzeko edo Pirinioen alde bateko eta besteko estatu modernoak osatuko zituzten eskualde multzo zabalarekin elkartuta jarraitzeko kinka estuan jarri zuen zatiketa sozial eta instituzionalerako aldi luzea gaintzen du. Foix-Albret familiak Valoistarrekin egindako hitzarmena izango zen Nafarroako ekinaldia martxan jarriko zuena, Fernando Katolikoaren ondareko erreinuen muga eta Gaztelako erreinuaren osotasuna arriskuan jartzeko baitzuen. Nafarroako gerra ezin daiteke ongi ulertu Espainiak eta Frantziak Italian eta Pirinio aldean zuten areriotasunaren testuinguru osoan hartzen ez baldin bada. Jarduera militarrek Nafarroa bera baino eremu zabalagoa hartuko dute, beraz; baina Nafarroako erreinuak jasango ditu gerra-ekintzen ondorioak latzenak. Gatazka hau ezin uler daiteke, ezta ere, Europako Mendebaldeko nazioarteko politika une hartan egiten ari zen bideak osatzen zituzten negoziaketak diplomatikoak kontuan hartu gabe.

Beste era batera esanda, Nafarroaren konkistatik Errege Katolikoa hil arte igaro zen denbora labur hartan gobernu-egituraren oinarri sendoak ezarri ziren, erregeordearen eta kapitain gorenen irudia instituzionalizatu zen, erreinuko erakundearen makineria arindu eta bizkortu zen, fakzioen bitartekaritza ezabatu zen eta, hala, ordu arteko iskanbilak desagertu zitezkeela ikusi zuten nafarrek. Nafarroako bigarren gerraren ondoren berriro ekingo zaio Errege Katolikoaren erreinaldiko antolamenduaren oinarriak ezartzeari; Hondarribiko kapitulazioaren ondoren, 1524an, agaramontar guztiei barkamena emanen burutuko zen aldi hau. Handik aurrerako urteetako bakeak gauzak finkatzen lagundu zuen eta, erreinuko jarduerak ekonomiko modu iraunkor batez berriro abiatuak, ekonomiaren goraldia ekarri zuen; denbora joan ahala gogoak baretu ziren, eta behinolako liskarrak leunduz joan ziren Nafarroak Espainiako monarkiaren lurraldeekin bat eginik zuen testuinguru berrian.

Nafarroako Gobernuak liburu honen 350 ale argitaratu ditu; Nafarroako Gobernuaren liburu-dendetan eta Nafarroako, Euskadiko, Aragoiko, Errioxako edo Madrilgo beste zenbait liburu-dendetan eros daitezke, 15 eurotan.

Liburuaren egileak:

María Isabel Ostolaza Elizondo. Unibertsitateko katedraduna da Historiografiako zientzietan eta teknikan; unibertsitate bat baino gehiagotan aritu da irakasle eta ikertzaile gisa (Nafarroako Unibertsitatea, Madrilgo Unibertsitate Complutensea, eta gaur egun Nafarroako Unibertsitate Publikoan dihardu). Hainbat artikulu eta monografia idatzi ditu bai azken erdi aroko gaztelar kantzelergoaz bai Nafarroako administrazioaz, gorteez, Austriatarren garaiko kulturaz eta eliteez; Nafarroa Aro Modernoan gaiaren inguruko gaietan zentratutako zenbait ikerketa-proiekturen burua da; proiektu horietan parte hartu dute edo hartzen jarraitzen dute ondoren aipatzen diren ikertzaileek ere.

Ignacio Panizo Santos. Parisko École Nationale des Chartes-La Sorbonne-n egin zituen ikasketak; gaur egun Estatuko Artxibozain eta Arkeologo Tituludunen Erakundeko Artxibozaina da, eta Madrilgo Artxibo Historiko Nazionalean du lanpostua, azkeneko eginkizuna Inkisizioko Sekzioaren buru izaitea duela. Ikerketa-proiektu askotan jardun du lankide gisa, Nafarroako gaiari buruzkoen artean Nafarroako zistertarren monasterioetako Ondare Dokumental eta Bibliografikoari buruzkoan, besteren artean.

Revista Huarte de San Juan aldizkariko Historiako Atalaren 17. zenbakiaren koordinatzailea; Artxibo Historiko Nazionalean Nafarroari buruz dagoen dokumentazioa da ale honen gai monografikoa.

M^a Jesús Berzal Tejero. Estatuko Artxibozain eta Arkeologo Tituludunen Erakundeko Artxibozaina da; zenbait artxibotan jardun du lanean (Valladolideko Errege Kantzelergoan, Armadaren Artxibo Nagusian –Madrilen–; une honetan Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoan dihardu). Zenbait ikerketa-proiektutan lankidetzan dihardu; monografia honetan argitaratzen denean, besteren artean. Revista Huarte de San Juan aldizkariko Historiako Atalaren 17. zenbakian ere parte hartu du, lankide gisa.

2) 1212-1512 bilduma. Nafarroa 1212-1512 liburu-bilduma Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Unibertsitateak eta Nafarroako Kutzak gai hauetan interesa dutenei Nafarroak hiru mende hauetan izan duen bizitzaren zenbait alderdiri buruz (historia, politika, kultura, etnografia, erlijioa) hamar liburu multzo bat eskaintzeko bideratu zuten ekimen bateratu batetik jaio zen. Liburuok bost eurotan erosi ahal izango dira astero, 2012ko martxoaren 12tik aurrera, Diario de Navarra egunkariarekin batera.

Liburu bakoitzak 100 orrialde inguru izango ditu. Liburu bakoitzean lantzen den gaiari buruzko zabalkundezko sintesi bat egin nahi izan da,

horregatik. Sintesi horrek eska daitekeen zehaztasun historiko guztia izan behar du, hala ere; baina liburuon zabalkundezko izaerak eskatzen duen arintasuna ahaztu gabe, hala ere.

Bilduma honetan, Nafarroako historiografian klasikoak diren gaiekin batera gaur egun aztertzen ari diren gaiak ere lantzen dira. Jendeak ez ditu asko ezagutzen gaiok, baina oso interesgarriak dira, Nafarroako iraganeko gizon eta emakumeen bizimoduaz, sentitzeko eta jokatzeko moduz dihardutelako.

Nafarroako Unibertsitatean Historiako eta Artearen Historiako Departamentuan Historia Modernoko irakasle titularra den Jesús María Usunáriz historiako irakasle eta doktorea izan da argitalpen hauen koordinatzailea.

Liburu horietako bakoitza argitara ematen den datan, Nafarroako Historia Azterketetarako Elkar-teak hitzaldi bat antolatuko du aurkeztu behar den liburuan lantzen den gaiari buruz.

Hona liburuon tituluak eta egileak:

1. 1212. La batalla de Las Navas de Tolosa ocho siglos después. Julia Pavón Benito eta Íñigo Arzoz Mendizábal

2. CREER (SIGLOS XIII-XVI). Ángeles García de la Borbolla eta Jesús M^a Usunáriz

3. FESTEJAR (SIGLOS XIII-XVI). Javier Ilundáin Chamarro eta Pablo Orduna Portús

4. AMAR Y CONVIVIR. Matrimonio y familia en Navarra (siglos XIII-XVI). Rocío García Bourrellier eta Jesús M^a Usunáriz

5. ODIAR. Violencia y justicia (siglos XIII-XVI). Mikel Berraondo Piudo eta Félix Segura Urra

6. SER MUJER (Siglos XIII-XVI). Julia Baldó Alcoz eta Amaia Nausia Pimoulier

7. HABLAR EN NAVARRA: Las lenguas de un reino (1212-1512). Concepción Martínez Pasamar eta Cristina Tabernero

8. LEER Y ESCRIBIR: Humanismo y literatura en la Navarra del siglo XVI. Carlos Mata Induráin

9. RECORDAR 1212/1512: la memoria. Francisco Javier Caspistegui eta María del Mar Larraza

10. LA CONQUISTA DE NAVARRA (1512). Historia y derecho. Alfredo Floristán Imízcoz eta Mercedes Galán Lorda

3) Lizarrako Erdi Aroari buruzko Ikerketen 38. Asteko Aktak: "En los umbrales de España. La incorporación del Reino de Navarra a la monarquía hispana". Nafarroako Gobernuaren Argitalpen

Zerbitzuak 2011n ospatu zen Lizarrako Erdi Aroari buruzko Ikerketen Asteko akta-liburua argitaratuko du datorren maiatzean; “En los umbrales de España. La incorporación del Reino de Navarra a la monarquía hispana” izango du izenburua.

4) Nafarroako Historiako VII. Kongresuko Aktak. 2010eko irailaren 27tik urriaren 1era Nafarroako Historiako VII. Kongresua ospatu zen Iruñean, Nafarroako Historia Azterketetarako Elkarateak antolatuta, Navarra, un espacio de cultura izenburu orokorrarekin. Kongresu horren aktak bi liburukitan argitaratuko dira, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak argitaratzen duen Príncipe de Viana aldizkarian. Dagoeneko argitaratuta dago 253. alea, Kongresu horretako zenbait ponentzia eta komunikazioekin, eta aurki argitaratzekoa da 254. alea ere. Ale honetan bilduko dira, multzo bakar batean, 1512az gero Nafarroa Espainiako monarkiarekin bat egiteko prozesuaz jardun zuten komunikazio guztiak.

Hauek dira:

1. Alfredo Floristán Imízcoz: “Justificaciones de la conquista y reclamaciones dinásticas sobre Navarra en el siglo XVI”

2. Roldán Jimeno: “Proceso contra Juan Navarro, defensor de la causa de los Albret en la conquista de Navarra”

3. Ana Zabalza Seguín: “Cambio de bandera. El palacio de Torreblanca y la construcción de la Navarra moderna”

4. José Miguel Escribano: “El derribo de murallas y castillos navarros tras la conquista. Antiguas y nuevas perspectivas”

5. Víctor Manuel Arbeloa Muru: “La desaparición casi inevitable del pequeño reino pirenaico”

5) 1512ko Nafarroaren Konkistari buruzko Nazioarteko Kongresuaren Aktak. Horrez gainera, Nafarroako Gobernuak 2011ko martxoan Iruñean ospatu zen 1512ko Nafarroaren Konkistari buruzko Nazioarteko I. Kongresuaren aktak argitaratuko ditu datorren maiatzean. Alfredo Floristán Imízcoz, nafar historialari eta Alcaláko Unibertsitateko Historia katedradunak antolatutako kongresu hori. Nafarroako historian aditurik garrantzitsuenean parte hartu zuten Nazioarteko Kongresu horren aktak izan dira Nafarroako Gobernuak bideratu behar duen zientzia eta zabalkundezko lan gehienaren oinarria.

Hauek dira kongresu hartan landu ziren eta aktetan jasoko diren gaiak:

INAUGURAZIOKO HITZALDIA: “Procesos de integración en Europa (siglos XV-XVII). Conquis-

tas y uniones: aceptaciones y rechazos.” Hizlaria: Giuseppe Galasso. (Napoliko unibertsitatea)

1. ATALA: HISTORIOGRAFIA ETA GAIAREN EGOERA:

1.1. “Las interpretaciones de la conquista: los cronistas y publicistas españoles, franceses y navarros (ss. XVI-XVIII)”

Txostengilea: Alfredo Floristán (Alcaláko unibertsitatea)

1.2. “Debates [y nuevas perspectivas] en torno a la conquista e integración de Navarra en España durante los siglos XIX y XX”

Txostengilea: Juan M^a Sánchez Prieto (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)

MD.1. Mahai-ingurua eta eztabaida: “Historias y memorias de conquistas y uniones.” Aurkezlea: Ricardo García Cárcel (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa)

2. ATALA: GERTAERAK, TESTUINGURUAK ETA AUZIAK.

2.1. “El reino de Navarra a principios del siglo XVI”

Txostengilea: Luis Javier Fortún (Nafarroako Parlamentua)

2.2. “El arte de la guerra y los usos de la violencia”

Txostengilea: Fernando Chavarría (‘Juan de la Cierva’ Fellowship, Alcaláko Unibertsitatea)

2.3. “Sociedad y cultura política. Nación, bando, familia”

Txostengilea: Isabel Ostolaza. (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)

2.4. “Las reclamaciones dinásticas: Navarra en las negociaciones hispano-francesas (siglos XVI-XVII)”

Txostengilea: Jesús M^a Usunáriz. (Nafarroako Unibertsitatea)

MD. 2. Mahai-ingurua eta eztabaida: “¿Conquista o Guerra de Navarra?” Aurkezlea: Agustín González Enciso (Nafarroako Unibertsitatea)

3. ATALA: ZUZENBIDEA ETA POLITIKA KULTURA.

3.1. “El derecho de conquista y el de retención” TxostengileaK: Mercedes Galán (Nafarroako Unibertsitatea)

3.2. “Formas de unión, vinculación y pertenencia”

TxostengileaK: Jon Arrieta (Euskal Herriko Unibertsitatea)

3.3. “La incorporación de reinos: Navarra en la Monarquía de España”

TxostengileaK: Magdalena Rodríguez Gil (Extremadurako Unibertsitatea)

MD. 3. Mahai-ingurua eta eztabaida: “Derecho y cultura política en el Viejo Mundo y en el Nuevo”

4. ATALA: BESTE BATERAKUNTZA PROZESU BATZUK EUROPAN.

4.1. “Conquistas y uniones en Italia: Nápoles y el Milanésado”

Txostengilea: Carlos José Hernando Sánchez (Valladolideko Unibertsitatea)

4.2. “Conquistas y uniones en la Monarquía de Francia: Bretaña y Borgoña”

Txostengilea: Dominique Le Page (Université de Bourgogne)

4.3. “La incorporación de Béarn y Basse-Navarre a Francia.” Txostengilea: Christian Desplat (Université de Pau et des Pays de l'Adour)

4.4. “Conquistas y uniones en la formación de la Monarquía británica: Gales e Irlanda”

Txostengilea: Nicholas Canny (National University of Ireland, Galway)

MD.4. Mahai-ingurua eta eztabaida: “Procesos de unión: estabilidad e inestabilidad”

Aurkezlea: Javier Gil (Bartzelonako Unibertsitatea)

AMAIERAKO HITZALDIA: “Navarra y la formación de la Monarquía de España”

Hizlaria: Pablo Fernández Albaladejo (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa)

HEZKUNTZA

1) Unitate didaktikoak.

Hezkuntzako Departamentuak 1212 eta 1512 mendeurreneko ospakizunei buruzko material lagungarri bat prestatu du DBHko ikasketak eta Batxilergoko lehenengo ikasturteak egiten ari diren ikasleentzat. Unitate didaktiko hau Nafarroako zenbait institututako irakasle talde batek prestatu du, DVD formatuan, euskaraz eta gaztelaniaz, eta datozen asteetan eskainiko zaie ikastetxeei.

2) 1212ri buruzko Kamishibai. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat 1212ko gertaerei buruzko ipuin bat ari da prestatzen Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua;

Kamishibai japoniar teknikaz baliatuz kontatuko zaie ikasleei.

3) Nafarroako Historiako Olinpiar Jokoak.

Hezkuntzako Departamentuak ikasturte honetan zehar Nafarroako Historiari buruzko Olinpiar Joko batzuk antolatuko ditu, Nafarroako ikastetxe guztietako ikasle guztiek parte hartu ahal izango dutenak.

4) Unibertsitateen udako ikastaroak. Nafarroako unibertsitateek antolatzen dituzten udako ikastaroetan Nafarroan 1212-1512 bitartean gertatu ziren gertaerak aztertzeko, ezagutarazteko eta ikertzeko eskainiko da haien programazioaren zati bat.

ERAKUSKETAK:

1) Nafarroako herrietan edo Nafarroako Etxea edo Nafarroako Zentroa duten Espainiako hiriburuetan zehar ibiltzeko erakusketa ibiltaria.

Martxoaren bukaeratik hasi eta abendua bitartean “1212/512/2012 Navarra. Escenario vivo de la historia” izeneko erakusketa bat eskainiko da 21 lekutan; gure Komunitate honen aztarren historikoa osatzen dituzten Nafarroako monumentu multzo nagusiak erakutsiko dira erakusketa horretan. Panelez eta bideoz osatuko da; Nafarroako 10 herri eta Zaragoza, Bartzelona, Logroño, Gasteiz, Bilbo, Barakaldo, Santander, Burgos, Valladolid, Madril eta Sevilla hiriak igaroko ditu, azkeneko hauetan hiri horietako Nafarroako Etxe edo Nafarroako Zentroen laguntzarekin.

2) La memoria de la memoria erakusketa. Martxo azkeneko astean Liburutegi Nagusian erakusketa bat egingo da, La memoria de la memoria izenburuarekin, 1912an Navas de Tolosako gudua ospatzeko egindako ospakizunei buruzko bertako materialaz baliatuz. Erakusketa honetarako materiala bertakoa da, eta 1512ko mendeurrenerako interes eta garrantzia berezia duten liburuak gehituko dira.

3) Erakusketa Nafarroako Museoan: Zaldia eta zalduna. Zaldia eta zaldunak, 1512 inguruan erakusketa ekainean inauguratzen da, Nafarroako Museoaren ohiko erakusketa-programaren barruan. Orain arte erakusgai jarri gabe zeuden Nafarroako Museoaren beraren piezaz osatutako erakusketa da, gehienbat.

HERRI OSPAKIZUNAK ETA INAUGURAZIOAK

1) Martzillako Gazteluaren zaharberritzearen inaugurazioa (maiatza/ekaina). Martzillako gazteluaren jabea Nafarroako Gobernuak da. Kultura Intereseko Ondasunaren kategoria du. Eraikin hau ez zen ezertarako erabiltzen Gobernuak erosi

baino lehenagotik ere, eta hondatzen hasita zegoen; hondamen hori geroz eta handiagoa zen azkeneko urteotan, eta geroz eta eragin handiagoa ari zen edukitzen barne-egituran; hainbat alderdi lur jota zeuden.

Mosen Pierres Peraltakoak 1420 inguruan bere kontura eraikitako gaztelua zen, gerora Falcesko markeserriko buru eta egoitza bilakatua.

Alesonek dienez, Cisneros kardinalak agindutako eraisketatik onik atera zen gotorleku bakane-tako bat izan zen, hartan bizi zen andre Ana Velascokoak, Falcesko markesak, buru egin zuelako.

Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak gazteluaren zaharberritzea egin du 2008ko abendutik 2012ko otsaila bitartean; lan horien aurrekontua 9.617.200,17 eurokoa izan da. Zaharberritzeko lanak bukatzean daude. Martzillako Udalak zaharberritzearen kostuaren % 10 bere gain hartuz lagundu du lanak finantzatzen. Gazteluak Udaltxea, liburutegi publikoa, musika eskola eta ospakizun-areto bat izango ditu; horrez gainera gazteluaren bisita ere izango da. Martzillako herriak ospakizun sail bat prestatu du gazteluaren zaharberritzearen inauguraziorako, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin; herria andre Ana Velascokoren garaietara bihurtuko da ospakizun horietan.

2) San Pedro Ruako eliza/gotorlekuaren zaharberritzearen inaugurazioa (maiatza/ekaina). Lizarrako San Pedro Ruakoaren eliza, historian zehar Santiagoko bideari lotua egon izan dena, monumentu historiko-artistiko deklaratu zen 1931ko ekainaren 3ko Dekretuz.

San Pedoren eliza izen bereko auzoko parrokia-eliza da, eta lotura estua du auzo horretatik igarotzen den Santiagoko Bidearekin. Erakuntza-historia luzeko eraikina da, arkitektura erromanikoren garaian eraikitzen hasia; garai horretatik interes berezia duen burualde hirukoitz bat iritsi zaigu; geroztik arkitektura gotikoaren garaian jarraitu zen eta erreforma sakonak egin zitzaizkion aro modernoan. Elizaren mendebaldean kalostra erromaniko ospetsu bat du; kalostra horren bi galeria iritsi zaizkigu gaur egungo garaietara arte.

San Pedro Ruakoaren elizak zaharberritzen bat behar zuen, bai kanpoko aldetik –teilatua, hormak, dorrea, iparraldeko portada–, bai barrualdean. Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak 2009ko martxoan ekin zion eliza osorik zaharberritzeari; 2012ko apirilera burututa egongo dela uste da. Zaharberritze honetarako 4.923.739,93 euroko inbertsioa egin da; inbertsio hori behar izan da zaharberritzeak behar izan dituen lau pro-

iektuetarako, lehenengoa teilatua, dorrea eta kanpoko hormak berritzeko, bigarrena iparraldeko portada berritzeko eta beste biak barruko aldea berritzeko.

NAFARROAKO ARTXIBO NAGUSIA

Nafarroako Artxibo Nagusiko hilabeteko dokumentua

Aurtengo lehenengo 6 hilabeteetan Juan Albretekoaren eta Katalina Foixkoaren erreinaldi osoari dagozkion dokumentuak, haien kanpo-politikari eta erresuma barneko zatiketa-egoerari dagozkien dokumentuak zehazki, daude erakusgai. Horregatik, urtarrilean Juan eta Katalina 1494an errege-erregina koroatu zireneko Akta jarri zen erakusgai, otsailean 1494ko urte horretan bertan Errege Katolikoekin sinatu zen Bake Hitzarmena, martxoan Beaumontarrei dagokien dokumentazioa jarriko da, apirilean agaramontarrei dagokiena, maiatzean eta ekainean Nafarroan inbasioa baino lehenagoko asteetan bizi izan zen gerra aurreko egoerari dagozkionak.

Hurrengo sei hilabeteetan, uztailetik aurrera, 1512ko dokumentuak jarriko dira erakusgai: Alabako Dukearen gaztelar gudarosteak erreinua inbaditu zueneko mugimenduei (inbaditzea bera 1512ko uztailearen 21ean hasi zen) eta erreinuaren konkistaren fase guztiei dagozkienak, gertaera nagusiak azalduz, Juan III.ak urrian eta azaroan erreinua berreskuratzeko egun duen ahalegina ere barne. Kasu honetan, uztailetik abendura bitarteko hilabete bakoitzean, 1512ko uztailetik abendura bitarteko hilabete horietako bakoitzeko dokumentu bat izango da hilabeteko dokumentua.

TURISMOA

Nafarroako Gobernuak Turismo Departamentuak Nafarroako gotorlekuak eta gazteluak ezagutzaraziko dituen turismo-produktu bat sortu du. Produktu hori datorren apirilera egongo da prest, eta Nafarroan 1512an izan ziren gertaeren gertalekuak izan ziren leku historiko nagusiak bisitatzeko aukera emango du.

Hauek dira, beraz, Nafarroako Gobernuak datozten urteetan bideratu behar dituen jardura nagusiak, erakundeen aldetik beste ekimen eta jardura batzuk bideratzeko oztoporik gabe.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko otsailean.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ez dion erantzun iragan azaroaren 3an AHTaren gainean eginiko galderari.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ez dion erantzun iragan azaroaren 3an AHTaren gainean eginiko galderari.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko otsailaren 10eko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak "8-11- PES-

00218" kodez egin eta berak erregistratutako (PES-00018) galderari dagokionez idatziz erantzuteko egindako galderari buruz hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

PES-00218 izenez kodifikatutako galdera otsailaren 9an egin zen Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilerako gai-zerrendaren 7.2 puntuan erantzuntzat ematen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko otsailean.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, N-240 errepidean, Ledeako parean, trafiko astunari balizko muga ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Txema Mauleón Echeverría jaunak galdera egin du N-240 errepidean, Ledeako parean, trafiko astunari balizko muga ezartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak Ledeako zubian trafiko astunaren igarobidea mugatzeari eta Esan A-21 autobidearekiko lotunea argitzeari buruz egindako galderari dagokionez, hau erantzun du dokumentu hau sinatzen duen Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariak:

1) Sustapen eta Etxebizitzako Departamentuak Ledeako Irati ibaiaren gaineko zubiaren gainetik trafiko astunaren igarobidea mugatzeko dituen planak dokumentu hau sinatzen duenak joan den otsailaren 14an Nafarroako Parlamentuaren aurrean azaldu zituen berberak dira.

Plan horiek, Ledeako alkate andreari eta ordezkariari behin eta berriro azaldu didan bezala, baliabide ekonomikoak izan bezain laster zubi hori konpontzea da. Obra hori alait lehen egingo dela espero dugu eta Ledeako Udalaren interesekin koordinatuko da betiere.

2) Zubia edozein eratako ibilgailuak igaro ahal izateko moduan konpontzea beste aukerarik ez dago.

3) Udalaren ordezkarien iritzian bezalaxe, Departamentu honen iritzian ere, eskualdeak turismorako dituen aukerak garatzea guztiz garrantzitsua da eskualde horren ekonomiarentzat; kasu honetan, ordea, segurtasunak askoz

ere garrantzi handiagoa du, eta horrek eraginda jarri da igarotzeko muga.

4) Esako lotunean argiak jartzea ez zegoen aurreikusita A-21 Pirinioetako Autobidearen 4 eta 5 tarteak eraikitzeko proiektuan; proiektu hori 2010eko maiatzean (4. tarte) eta 2009ko otsailan (5. tarte) onartu zen. Horren jendaurreko informazio publikoko aldiari, Esako Udalak zenbait alegazio egin zituen gai honi buruz, baina alegazio horietako batean ere ez zen aipatzen argiztapenaren gaia.

Hala ere, gai honi buruz egindako eskakizunak entzun ondoren, eskaria aztertu zen; ikusi denez, Autobidearen lotune batean ere ez da argiztapenik jarri, eta horrek ez du inolako eragin negatiborik izan azpiegitura horren erabileran.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 194.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2012ko otsailaren 16an

Sustapen eta Etxebizitzako kontseilaria: Anai Astiz Medrano jauna

Galdera, Mercadona bezalako kateekiko hitzarmen eta akordioek izan dezaketen eraginaren balorazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Mercadona bezalako kateekiko hitzarmen eta akordioek izan dezaketen eraginaren balorazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko urtarrilaren 27ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Mercadonarekiko elkarlan-protokoloari buruz, idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez 8-12/PES-00004, hau erantzun du Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

Espainiako Konstituzioak, 38. artikuluan, enpresa-askatasuna aitortzen du merkatu-ekonomiaren markoan. Europar Batasuna eratzen duten Itunek, beren aldetik, barne mugarik gabeko eremu batean, hau da, barne merkatu batean, salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea bermatzen dute.

Era berean, Konstituzioaren 51. artikulua agintzen duen bezala, agintari publikoek dagokie kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa bermatzea, horretarako, horien segurtasuna, osasuna eta bidezko interes ekonomikoak prozedura eraginkorrez babestuz.

Testuinguru honetan, beraz, Nafarroako Gobernuari dagokio eragile ekonomikoek lehiari aritzea duten obligazioa eta betebeharra bermatzea, era horretan, alde batetik, merkatuak egoki funtzionatuko duela eta aberastasuna sortuko dela ziurtatzeko eta, bestetik, kontsumitzaileei ondasun- eta zerbitzu-eskaintza egoki bat eskaintzeko.

Oinarri horretatik abiatuta, bada, Nafarroan ekonomia biziberritzea eta ondasunak eta enplegua sortzeko bultzatzea izan da Nafarroako Gobernuak elkarlanerako protokolo horiek sinatzean izan duen helburua.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Larrialdietako Agentziako sarjentu izateko bost lanposturen deialdiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Txema Mauleón Echeverría jaunak galdera egin du Nafarroako Larrialdietako Agentziako sarjentu izateko bost lanposturen deialdiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko otsailaren 3ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak Suhiltzaileetako Sarjentotarako 5 lanpostutarako deialdiari buruz egindako informazio-eskariari dagokionez (PES 007/12), hau erantzun du Lehendakarietako, Administrazio Publikoetako eta Barne Arazoetako kontseilariak:

1º. Deialdia egiteko arrazoia.

Suhiltzaileen Partzuergoaren langile-plantillan zenbait urtez hazkunde begetatibo bat izan ondoren, lehen esku-hartzeko plantilla egokiak, ongi funtzionatzeko, 280/290 suhiltzailez eta 100 kaboz osatua izan behar duela erabaki zen, eta horrela osatu zen hasierako gutxienezko baliabide multzoa.

Horrekin batera, suhiltzaile-etxe bakoitzeko gutxienezko buruzagitzaren egitura definitu zen: sarjentu bat, eskualdeko etxe bakoitzeko, eta sarjentu bat Iruñeko suhiltzaile-etxe brigada bakoitzeko (une hartan eskualdeko 9 suhiltzaile-etxe eta Iruñekoa ziren); horrela 13 sarjentu osatzen ziren.

Geroztik Peraltako suhiltzaile-etxea zabaldu zen, eta 2010ean Trinitarioetako suhiltzaile-etxe berria; horren ondorioz, hasierako gutxienezko egituratik, hasierako irizpide berberari jarraituz, 15 sarjentuko oinarritzeko egitura bat izatera iristen da (11 eskualdeetako suhiltzaile-etxeetarako eta lau Iruñeko brigadetakarako).

2007ko hasierako 13 sarjentuetatik, 12 daude gaur egun.

Esandako honetatik, bada, bestelakorik gabe, suhiltzaile-etxeetako sarjentu-lanpostuak betetzeko eta, horrenbestez, maila horretarako hitzartuta-

ko guardiak betetzeko gaur egun dagoen defizita hiru lanpostukoa da.

Horrez gainera, talde berezien premiak estali beharra, kudeaketa- eta formazio-jarduerak egin beharra eta kanpaina-premiak edo beste talde batzuk garatzeko premia kontuan hartzen badira, beste lau lanposturen premia dagoela ikusten da gaur gaurkoz. Hala eta guztiz ere, ordea, gaur egungo murrizketa ekonomikoko egoera kontuan hartuta, gaur egungo 5 lanpostu betez gero, zerbitzuaren premiak egoki beteko liratekeela uste da.

2º. Egitura aldatu izanaren arrazoia eta guardietan 2 agintedun egotetik 3 agintedun egotera iragan izanaren arrazoia, bai eta horrek guztiak zerbitzuan izanaren duen eragina ere.

2008an 5 Ofizial eta 8 Azpiofizial (13 pertsona) zeuden guztira zerbitzuan; pertsona horiek bi guardia-mailetan egituratuta zeuden; horiez gainera sarjentuen eta kaboen mailak kontuan harturik, lau maila osatzen ziren. Une horretan, era honetan zegoen planifikatuta etorkizunerako agintedunen egitura, zuzendaritzaren eta sindikatuen alderdiaren adostasunez:

9 ofizial (beste lau lanpostutarako deia egitea aurreikusita).

– 12 Azpiofizial (beste 4 lanpostu aurreikusita).

– 21 Sarjentu (beste 7 lanpostu aurreikusita).

2010 urtean honela zegoen egoera:

– Goi-mailako guardia bat (ofizialak) astelehenetik ostiralera goiz eta arratsalde lanpostuan egonez, eta gauean, jaiegunetan eta asteburuetan aurkitzeko moduan guardia eginez.

– Azpiofizialen mailako guardia bat 112 gelako arduradun gisa, egunero goiz eta arratsalde lanpostuan egonez, eta egunez aurkitzeko moduan guardia eginez.

– Sarjentu-guardia bat lanpostuan egonez (egunean bi gutxienez, bat Iruñerako eta Iruñerri-rako eta bestea Foru Komunitatearen beste guzti-rako).

– Kabo bat suhiltzaile-etxe bakoitzean eta bi Cordovillakoan denbora guztian.

Esanaz gainera, esan beharra dago orobat, arratsaldez eta gauez, ofiziala, azpiofiziala eta bi sarjentuak Iruñean egoten zirela eta handik ema-

ten zutela zerbitzua komunitate osorako (agintedunen gehiegizko kontzentrazioa, eta denak leku berean).

2011n, Ofizialaren eta Azpiofizialaren bi guardia-mailak bateratu egin ziren, eta guardia hori 112 gelan egiten zen, Guardiako Arduradun gisa, bata zein bestea, goizeko eta arratsaldeko ordutegiarekin, egunero, eta gaueko guardia aurkitzeko moduan eginez jarraituz.

2012ko urte honetan gaueko guardia kendu egin da, eta Ofizialak eta Azpiofizialak 24 orduko guardia-gurpil egonkor batean sartu dira.

Horrez gainera, esan beharra dago eskualdeko banaketa era honetan osatzen dela: Guardia Arduradun bat Eskualdeko Sarjentua ez dagoen eremuan zerbitzua emateko, Sarjentu bat Iruñean eta Iruñerrian, eta Eskualdeko Sarjentu bat, Tafalla/Peraltako eskualdean arratsaldeko eta gaueko guardia eginez; egitura hau neguan basoetako kanpainarako egokitu daiteke, eta hala egitura murriztagoa, arinagoa eta gertaeretatik hurbilago dagoena izatea lortzen da.

Guardiako Arduradun lanpostu honetarako gaur egun dauden kargudunen kopurua 9 pertsonakoa da (2008an baino lau gutxiago) eta eguneko aurkitzeko moduan egoteko bi guardiak, bere hartan mantentzen zirenak, kendu egin dira; horregatik honela dago orain egoera:

– A/B mailako 4 pertsona gutxiago.

– A eta B mailetarako aurkitzeko moduan egoteko 2 guardia egunero.

Hau da, lehen 4 guardia-maila zeuden, eta gaur egun planteatuta dagoen berregituratzearekin 3 maila izango dira, horrek dakarren murrizketarekin.

3º. Sarjentu-lanpostuen deialdia zertan den, ordezkari sindikalek horien aurka errekurtsioak jarri ondotik, bai eta Nafarroako Larrialdietarako Agentziak errekurtsio horiek galduz gero sor litezkeen ondorioak ere.

Sarjentu-lanpostuak betetzeko deialdiari dago-kionez, administrazio-izapidetza betetzen jarraitzen da; hala, joan den urtarrilaren 27an Nafarroako Aldizkari Ofizialean Hautaketarako Zerbitzuaren Zuzendariaren Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan sartzeko Hautaketarako urtarrilaren 23ko 1/2012 Ebazpena argitaratu zen; ebazpen horren bitartez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzurako Suhiltzaileetako Sarjentu-lanpostuak oposizio-lehiaketaz betetzeko deira onartuen

eta hartatik baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen duena.

Aurkeztu diren administrazio-errekurtsioetan planteatutako gairen bat aintzat hartzeak deialdia aldatu beharra ekarriko luke eta, hala izanez gero, hutsik dauden lanpostu horiek osatzea atzeratuko litzateke.

4º. Deialdi horri buruzko negoziatorik egin al da sindikatuarekin? Hala baldin bada, ondokoa jakin nahi dugu: zer bilera egin diren eta sindikatuak eta Nafarroako Larrialdietarako Agentziaren ordezkariak zer jarrera izan duten.

Hasteko esan beharra dago gai hori bete-betean sartzeko Administrazio Publikoak bere burua antolatzeke duen ahalmenean, ahalmen horrek eraginkorragoa izateko ongien deritzon moduan antolatzeke ahalmena ematen baitio Administrazio Publikoari.

Hala ere, 2006an akordio bat negoziatu zen sindikatuen ordezkariarekin; akordio horretan 8 Ofizialez, 12 Azpiofizialez eta 21 Sarjentuz osatutako egitura bat sartu zen.

Geroztik, zerbitzuaren egiazko premiak, esku-hartzeen kopurua, eginkizunak eta azkeneko hamar urte hauetako estatistikak kontuan hartuta, hitzartutako egituraren azterketa bat egin zen, zerbitzu honen gaur egungo premietara eta etorkizunekoetara nola egokitzen den begiraturaz.

Testuinguru berri honetan, beraz, 2011ko abuztuaren 5ean Nafarroako Larrialdietarako Agentziaren Zuzendaritza berria Langile-Batzordearekin bildu zen, estrategia berria azaltzeko. Bilera horretan Batzordeko kidei beste aukera batzuk aurkezteko eskatu zitzaizkien, aukerak ongi arrazoituta.

Iazko abuztuaren bukaera aldera Langile-Batzordeko kideei txosten bat eman zitzaizkien, Zuzendaritzak etorkizunerako planteatzen duen aginte-estrategia, eta datozen urteotan, goi-mailatan aurreikusita dauden erretiroei esker, gaurko egoeratik hartara aldatuz joateko bidea zehazkiago azalduz.

Geroago, 2011ko irailaren 2an egindako bilera batean, Nafarroako Larrialdietarako Agentziaren Zuzendaritzak egiturari buruzko dokumentuaren azalpenak eta zurigarririk eman zituen Langile-Batzordeko kideen aurrean. Bilera horretan sindikatuen ordezkariak ez zuen inolako eragozpenik azaldu ez bestelako aukera-proposamenik egin.

Langile-Batzordearekin gai honi buruz bereziki hitz egiteko izandako bilera horiez geroztik, sindikatuek deialdiaren kontrako jarrera azaldu dute,

baina ez dute inolako proposamen oinarriturik aurkeztu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakari-zako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakitekoa ba ote dagoen natur monumentuak mantentzeko inolako planik.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du, jakitekoa ba ote dagoen natur monumentuak mantentzeko inolako planik.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko otsailaren 3ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak Nafarroako Gobernuak Nafarroako Monumentu Naturalak mantentzeko planik baduen argitzeko galderari dagokionez (8-12/ PES- 00014), hau erantzun du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamendu honetako Bioaniztasunaren Kontserbazioko Zerbitzuak badu Nafarroako Monumentu Natural guztien berrikuspenerako protokolo bat; protokolo hori sei hilabetez behin gauzatzen da.

Protokolo horrek bi osagai ditu: Monumentu Natural bakoitza (urtean bi aldiz) in situ begiratzea eta zuhaitza (edo zuhaitz multzoa) zein egoeratan dagoen deskribatzen duen txosten bat prestatzea. Horretarako, Basoen Kudeaketako Atalak fitxaredu bat eta fitxa hori betetzeko informazioa ematen dizkio Zaindaritza Atalari. (Erantzun honekin batera Eranskin bat eskaintzen da, eduki hauekin: 1- Ikuskaritzako fitxa, 2- Abenduaren 1eko

87/2009 Foru Dekretuaren laburpena, 3- Nafarroako monumentu naturalen katalogoa)

Txosten horietan eta pertsona partikularrek edo udalek egindako oharretan oinarrituta, zuhaitz horietan urtean egin beharreko esku-hartzeen lehentasunak zehazten dira.

Era askotako esku-hartzeak egiten dira: zuhaitz zaharren osasun-egoerari eta izan daitezkeen konponbideei buruzko berezilarien txostenak, inausketak, hautsitako adarrak moztea, egitura puskatu ez dadin tenkagarriak jartzea, zuhaitz-burua jaistea, lurra aztertzea, bideak aldatzea, ingurua garbitzea, babeseko itxiturak jartzea, eta abar.

Horrez gainera, iaz, 2011n Nafarroako Monumentu Natural guztiak informazio-oholen bidez seinalizatzeko lanak bukatu ziren.

Nafarroako Monumentu Natural gehienak zuhaitz zahar edo hondatuak dira. Horregatik, monumentu horiek mantentzeko plana "etengabea" da; horregatik, bada, egoera zaindu, ahal dela hobetu eta ingurua babesteaz gainera, ahalik eta lasterren esku hartzen da ustekaberen bat gertatzen denean (adar bat puskatzen denean, adibidez). Ez da ahaztu behar adin handiko zuhaitzak direla, eta ez dela betiere komeni zerbait egitea eta ez direla betiere lortzen lortu nahi diren emaitzak.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2012ko otsailaren 15ean

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Ágora aplikazioan.)

Galdera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak 2011ko urriaren 1etik abenduaren 31ra baimendutako laguntzen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak 2011ko urriaren 1etik abenduaren 31ra baimendutako laguntzen kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko urtarrilaren 27ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko parlamentu-talde popularreko Ana Beltrán Villalba andreak aurrekontuen doikuntzei buruz idatziz erantzuteko egingdako galderari dagokionez, 8-12-/PES-00005, hau erantzun du Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

Atxikita ematen dugu dagokion txostena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko otsailaren 22an

Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

ENERGIA BERRIZTAGARRIETARAKO ETA ENERGIA AURREZPENERAKO EMANDAKO**DIRULAGUNTZAK****LABURPENA: -Energia berriztagarrietarako dirulaguntzak 2009, 2010 eta 2011 urteetan.**

	2009	2010	2011
Onuradun kop.	10	21	33
Emandako laguntza	348.639,15	389.440,44	2.288.729,57

LABURPENA:

- **Industriaren eta kogenerazioaren eremuan energia aurrezteko jardueretarako dirulaguntzak 2008-2009 kanpainan** (2009an ordainduak), **2009-2010 kanpainan** (2010ean ordainduak) **eta 2010-2011 kanpainan** (2011n ordainduak).

	2009	2010	2011
Onuradun kop.	58	54	64
Emandako laguntza	1.010.796,68	673.718,12	1.073.870,00

2011an hazkunde handia izan zuten emandako laguntzek eta laguntza-hartzaileen kopuruak.

2011/10/1 ETA 2011/12/31 BITARTEAN ONARTUTAKO DIRULAGUNTZEN BANAKAKO ZERRENDA:

- **Energia berriztagarrietarako diru-laguntzak 2011an.**

ENPRESA	MOTA	DIRU-LAGUNTZA	LAGUNTZA MOTA
BIOENERGÍA ULTZAMA, S.A.	BIOGAS	906.008,37	Enpresen inbertsioak
IRUÑA PALACE, S.A. (HOTEL TRES REYES)	FV KONEKTATUA	250.641,06	Enpresen inbertsioak
PRODEIN,S.L.	FV KONEKTATUA	18.020,00	Enpresen inbertsioak
AMAYA SPORT, S.L.	FV KONEKTATUA	73.051,11	Enpresen inbertsioak
GRUPO INVERSOR VALDEBRO, S.L.	FV KONEKTATUA	38.020,30	Enpresen inbertsioak
MONTAJES ELÉCTRICOS PAMPLONA, S.A.	FV KONEKTATUA	54.842,85	Enpresen inbertsioak
SOLNAVALLAS, S.L.	FV KONEKTATUA	28.274,40	Enpresen inbertsioak
COMPACTACIONES Y NIVELACIONES PARDO, S.L.	FV KONEKTATUA	59.936,74	Enpresen inbertsioak
COMPACTACIONES Y NIVELACIONES PARDO, S.L.	FV KONEKTATUA	66.062,86	Enpresen inbertsioak
COMPACTACIONES Y NIVELACIONES PARDO, S.L.	FV KONEKTATUA	59.936,74	Enpresen inbertsioak

COMPACTACIONES Y NIVELACIONES PARDO, S.L.	FV KONEKTATUA	59.936,74	Enpresen inbertsioak
SANIRI, S.L.	MINIHIDRAULIKOA	57.939,88	Enpresen inbertsioak
ESCALERAS AGUERRI, S.L.	FV KONEKTATUA	35.899,69	Enpresen inbertsioak
COMERCIAL NAVARRA DE INSTRUMENTACIÓN, S.A.	FV KONEKTATUA	61.808,74	Enpresen inbertsioak
RESIDENCIAL MARBA, S.L.	FV KONEKTATUA	63.619,90	Enpresen inbertsioak
LOGISTIC BIOTRANS, S.L.	FV KONEKTATUA	62.096,24	Enpresen inbertsioak
L`SOL SOLUCIONES ENERGÉTICAS, S.L.	FV KONEKTATUA	10.567,34	Enpresen inbertsioak
FOTOVOLTAICA AGRÍCOLA COR, S.L.	FV KONEKTATUA	51.568,97	Enpresen inbertsioak
CONSTRUCCIÓN DE MAQUINARIA AGRÍCOLA SATURNINO, S.L.	FV KONEKTATUA	45.935,29	Enpresen inbertsioak
ASOCIACIÓN LABORAL JOSENEA	EOLIKOA	732,20	En. Berriztagarrietarako deia
ASURMENDI SISTEMAS DE ENERGÍA, S.L.	FV KONEKTATUA	2.295,05	En. Berriztagarrietarako deia
CERVEBEL, S.L.	BIOMASA	6.000,00	En. Berriztagarrietarako deia
